

Zein da **BERA** izenordainaren plurala?

berak

eurak

beraiek

Euskaltzaindiak erabileroi buruzko erabaki zehatzik hartu ez badu ere, **berak** formaren alde jo ohi da prosa estandar zainduan, eta horrek dirudi biderik egokiena euskara batuan:

berak

berek

bereri

beren

berentzat

berekin

berez

beretan/berengan

beretatik/berengandik

beretara/berengana

beretako

Mendebaldeko hizkera batzuetan, **eur-** moldekoak erabiltzen dira, **ber-** moldeko pluralen euskalkialdaera gisa.

(hareek/haiek) eurak

Bi forma tradiziozko horien ondoan (**berak/eurak**), analogiazkoa ugaltzen ari zaigu azken aldian (**beraiek**).

Tradizioan, ia-ia zubereraz bakarrik ageri dira **beraiek** moldekoak.

Mendebaldeko aldaera estandarizatuek ere beren lekua izan dezakete, euskalki gisa markatuak izan arren:

eurak
eurek
eurei
euren

...

Nolanahi ere, desegokia da sistema batekoak eta bestekoak nahasian erabiltzea:

- ✘ Aberats batzuen obsesioa izaten da **euren** ordularia munduan bakarra izatea. Jasangaitza zaie **berak** daramaten ordulari berdina ikustea beste pertsona baten eskumuturrean.

Prosa estandar zainduan:

Ⓢ (...)**ber**en (...). (...)**ber**ek (...)

Mendebaldeko aldaera estandarizatuetan:

Ⓢ (...)**e**uren (...). (...)**e**urek (...)

Baztertzeakoak deritzegu, prosa zainduan,
analogiazkoei:

*beraiek

*beraiei

*beraien

*...

✘ Beraiek sortu zuten ikastola.

✘ Energia berriztagarriek **beraien** alde onak
eta txarrak dituzte.

(hura) bera/*berura

(haiek) berak/*beraiek

Hona adibide batzuk:

Euskaldun euskararen arbuiatzaileak
berak dira arbuiagarriak.

Joanes Etxeberri Sarakoa

[Batura moldatua]

Saldo arrotz bat arriskutsua den erabakitzeko, [lehoi] lehiakideak zenbat diren zehaztu beharko dute lehoiek, haien bokalizazioen bidez. Hau da, urruneko lehoien orroak entzun beharko dituzte, eta balioetsi ea **berak** baino gehiago ala gutxiago diren kopuruz.

Hauser, Marc D.: *Gogo basatiak*, EHU, 2008 (euskaratzailea: Irene Aldasoro).

Zientzialariei zaila gertatuko zaie **berak** ondoen ezagutzen dituzten kontzeptu teorikoen bidez mundua interpretatzeko joera inhibitzea.

Hauser, Marc D.: *Gogo basatiak*, EHU, 2008 (euskaratzailea: Irene Aldasoro).

Eraldaketa kontzeptual horrek erakusten die [haurrei] gauza biziak baizik ez direla hiltzen; hiltzean, burmuinak funtzionatzeari uzten diola; hiltzen badira, gauza bera gertatuko zaiela **berrei** ere; inor hiltzea txarra dela, eta beste bati bizia kentzeko edo beren burua hiltzeko ahalmena dutela.

Hauser, Marc D.: *Gogo basatiak*, EHU, 2008 (euskaratzailea: Irene Aldasoro).

Esate baterako, giza genetika harturik hizpide, garbi dago giza genoma dezifratzeak hainbat arriskualdi ekar ditzakeela ondotik. Demagun, adibidez, badela nolabaiteko erlazioa gas pozoitsu jakin batekiko sentiberatasunaren eta gorputzaren tamainaren artean; hala, herri bateko jende altua jo eta garbitzeko, aski litzateke txikitxoek kaleetan barrena zabaltzea gas hori, ez bailieke **bereri** kalterik egingo.

Jacob, François: *Sagua, eulia eta gizakia*, EHU, 2004 (euskaratzailea: Juan Garzia).

David Premack-ek eta Ann Premack-ek, gainera, **beren** liburuaren zirriborro batzuk utzi zizkidaten, eta asko ikasi dut haiekin izandako korrespondentzia eta harremanetik.

Hauser, Marc D.: *Gogo basatiak*, EHU, 2008 (euskaratzailea: Irene Aldasoro).

Badirudi, gainera, koroa-arteriak txikiegiak direla **beren** lana behar bezala egiteko.

Lenihan, John: *Giza gorputza lanean*, EHU, 2006 (euskaratzailea: Irene Aldasoro).